A1256

altza

Patxi Lazkanoren oroimenez

duela gutxi altzatar eta euskaldun guztioi Patxi Lazkanoren heriotzaren oihartzuna iritsi zitzaigun. Guztion ahotan Patxik bizitzan zehar egindako eta esandakoak ibili ziren eta bere omenez altzatarrentzat bere bizitzako hainbat pasadizo kontatu nahi ditugu.

Patxi Lazkano 1916. urtean Altzako Otxoki baserrian jaio zen, gaur egun baserria desagertua dago baina aspaldi hartan Altza inguruneko bizitza soziala mantentzen saiatzen zen baserria genuen. Ametzagainako zubi azpian kokaturik, Otxoki, baserria izateaz gain, sagardotegi eta taberna ere bazen eta bertan egin zituen Patxik bere lehen saiakerak bertsotan.

Otxoki Patxirentzat eskola eta ikasgunea izan zen. Desagertu ondoren, behin baino gehiagotan ibili zen Patxi baserriari buruzko informazioa jasotzen.

Garai bateko argazki honetan Patxi Lazkano Mari Arrieta bere emaztearekin ikus dezakegu.

Bere gogoetak

Honela jasotzen zituen Antonio Zavalaren «*Altza'ko bertsolari zaarrak*» liburuan Patxi Lazkanok bere gogoetak: «*Apustua zuten Otxoki baserria ta Ametzagaña bitartean; zaarra, goitik beera, Ametz-gaña'tik Otxoki'ra; gaztea, beetik gora, Otxoki'tik Ametz-gaña-ra trabesa, duro bat zuten. Xantxoni beste osatu zioten duro ori. Oietako bat, Joxe Garmendia izan zan. Pezeta jarri zuan onek. Joxek Ametz-gaña'n egon bear zuan, Xantxon noiz irixten zan, Otxoki baserrian zeuden erloju-zaleai pistola-tiro batez adierazteko. Bañan etzan tiro bearrik izan. Ora zergatik: Abiatu ziran korrikalariak egiñalean, ta, alkarren parean irixtean, zaarrak gazteari onela esan zion, geldi-arazita: Nora oa, aluki? ta gizajo ura, itz oiekin ikaratuta-edo igo gabe gelditu zan. Ala, zarrak irabazi zuan apustua, ta Joxek pezeta galdu. Gero, bertsoak jarri zituan onek. Garai artan, Otxoki taberna ta sagardotegia zan, ta jai-arratsaldeetan olako broma asko egiten zan. Umore faltarik etzan izaten*».

Bertsozalea

Baina baziren baserriaz gain Patxik maite eta ezagutzen zituen beste hainbat gauza: besteak beste, bertsoak plazatan abestu eta entzutea; 1983. urtean Antonio Zavalarekin batera «*Tiro tartean bertsotan*» liburua kaleratu zuen. Toka eta boloak ere bere bizitza guztiko afizioa izan ziren, 50 bat sari jaso zituen Patxik joku hauekin. Arraunean Loiola inguruan eratutako traineruan ere ibili zen eta azken finean gure kulturarekin zerikusia zuen guztiaz arduratu zen.

Patxi Lazkano Txipres baserriko Maria Arrietarekin ezkondu eta sei semealaba utzi ditu bidean, dena den altzatar guztiok ondo gogoratuko dugu gizon honek gure historian izan duen eragina.

Goian bego!

Altzan E.H.E sortu dela ba al dakizue?

Euskal Herrian Euskaraz taldeko altzatarrek dei bat egiten diete auzokideei bere bileretara joatera eta ekintzetan parte hartzera anima daitezen. Astelehenero elkartzen dira arratsaldeko bostetan Herrera pasealekuko 9. zenbakian (Itxiartxo etxea).

Altza euskaldun bat egitea du helburu talde honek eta guztion laguntza behar du.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)